

PIOLET ETA KRANPOIAK

MOTAK ETA ERABILERA

Negu giroan mendian egiten diren ekintzetan piolet eta kranpoien erabilera ez inbestekoa da. Erabilera hori ez da berria, izan ere, kranpoiei egindako lehen erreferentzia II. mendekoa da. Artikulu honetan, piolet eta kranpoi mota ezberdinak ezagutzeaz gain, neguko ekintza ezberdinetara hobekien egokitzen den piolet edo kranpoiak aukeratu ahal izateko informazioa izango duzu.



TESTUA
Xabi Mujika "Smily"
Mendian bat etzen dituen ametsak smi thyer bloga, com blogoan, Pyrenaiak aldizkariari eta Berria egunkariari partekatzen gustuko du, beste mendialde batzuen ametsak hobetzeko laguntza izango delakoan. Pyrenaiak aldizkariaren erredakzio taldeko kidea.

PIOLETAREN ATALAK

- BURUA:** pioletaren goiko zatia da, metalezkoa, pioletaren kirtenarekin gurutze bat osatuz elkartzen dena. Buruak era berean bi zati ditu:
 - XAFLA:** buruaren aurreko zatia da eta hortzak izaten ditu. "B" eta "T" motakoak izan daitezke. "B" motako xaflak "bigun" eta finagoak direnez, izotzerako egokiak dira. "T" motako xaflak aldiz, "gogor" eta sendagoak dira eta izotz-eskalada ez den beste aktibitateetarako aproposak izango dira.
 - PALA EDO MAILUA:** buruaren atzeko zatia da. Pala, eskailera-mailak egiteko edota eroriko bat gelditu ahal izateko erabiliko dugu. Mailua, aldiiz, batez ere iltzeak sartzeko.
- KIRTENA:** pioletaren heldulekua da eta gomazko babesgarrria izaten du, bi funtzio dituena: batetik pioleta eskuetatik irrist ez egitea eta bestetik pioleta termikoki isolatzea.
- PUNTA EDO "TXURROA" (GAZTELAMIAZ "REGATÓN"):** kirtenaren muturrean dagoen puntari deitzen zaio eta pioleta bastoi bezala erabiltzerakoan laguntza handikoa da.
- DRAGONERA:** kirtenetik atera eta esku muturrean lotzen den segurtasun zinta. Dragonerarik erabiltzen ez denean pioletak bi zinta elastikoekin amesera lotuak eramaten dira. Zinta elastiko hauen funtzio nagusia pioletak ez gaitzea eta momentu jakin batean eskalatzailea eustea da.



PIOLET MOTAK

- OINARRIZKOAK:** kirtenean "B" ("basic") bat izaten dute zirkulu baten barruan. Oinarritzko pioletak glaziar edo malda txiki lekuetan euskarri moduan edo iltzeren laguntzeko diseinatuak daude. Orokorrean, kirtena zuzena, helduleku simplea edo heldulekuirik ez, xafla zuzena eta aldaezina eta luzera ezberdinekoak izaten dira.
- TEKNIKOAK:** kirtenean "T" ("technical") bat izaten dute zirkulu baten barruan. Piolet hauek izotz eskalada eta alpinismoarako diseinatuak daude. Orokorrean, kirtena okerra, helduleku ergonomikoa, aldatu daitezkeen xafla oker eta horzdunak eta 50 cm inguruko luzera izaten dute.
- PIOLET "MISTOAK".** Etxe komertzialek "asmatutako" hirugarren mota bat da. Piolet hauek itxura eta luzera klasikoa baina kirtena okerra dute. Oinarritzko pioleten erabileraz gain, 45° - 55° gradu arteko maldetaraino erabiltzeko diseinatuak daude.



OINARRIZ KOA



TEKNIKOA



MISTOA

KRANPOIAK EROSTERAKOAN KONTUAN HARTU BEHARREKOAK

1. PUNTA KOPURUA.

- **6-8 PUNTA:** malda eta arriskurik gabe ko ibilbideetarako eta noizbehinka elurtegi bat zeharkatu behar bada. Kranpoi "ultra teknikoek" ere kopuru hau izaten dute.
- **10 PUNTA:** txiki edo teknikoak ez diren maldetarako.
- **11 PUNTA:** kranpoi hauek hamar punta dituzte eta aurrealdean punta bakarra. Izotz-eskalada tekniko, eskalada misto eta *dry-tooling*-erako erabiltzen dira, harkaitzen arteko pitzadura txikietan aurreko punta sartzeko aukera ematen baitute.
- **12 PUNTA:** malda handi edo teknikoetarako, alpinismoarako edo izotz-eskaladarako. Bi punta izaten dituzte aurrealdean.

2. AURREKO PUNTAK.

- **KOPURUA:** punta bat edo bi izango dituzte. Goian azaldu da bat edo bestearen erabilera.
- **OKERDURA:** bertikalak diren lekuetarako ia horizontalak izango dira. Malda txikiagoa den neurrian, aldiz, okerdura handiagotzen joango da.
- **LUZERA:** botatik 2-3 zentimetro irtetea gomendatzen da. Izotz gogorrean aurreko puntak motzagoak badira, kranpoiak sartzerakoan horietatik gertuago mantenduko gaituzte, gure segurtasun eta hanketako bikien mesederako.
- **MOTAK:**
 - **ZAPALAK:** punta hauek horizontalak direnez, malda gutxi lekuetan hobe eusten dute, batez ere elur gogorrik ez badago.
 - **BERTIKALAK:** pioletaren xaffaren itxura dute.
 - **"T" MOTAKO PUNTAK:** punta zapal eta bertikalen arteko nahasketa. Puntak zerra itxura dauka baina kranpoia-
ren armazoiria hurbildu ahala zapal itxura hartzen du.



PUNTA ZAPALAK



PUNTA BERTIKALAK



'T' MOTAKO PUNTAK

KRANPOI MALGUAK



KRANPOI ZURRUNAK



MINIKRANPOIAK



3. **GAINONTZEKO PUNTAK.** Aurrealdeko puntan atzean dauden puntak aurrera zuzenduz egon daitezke, punta hauek izaten direlako malda batean aurreko puntei egonkortasuna ematen dietena. Kranpoiaren orpoan dauden puntak jaitsieratan garrantzitsuenak dira, horregatik haien orientazioa zein den ongi begiratu behar dugu.

4. **KRANPOIEN ARMAZOLA MOTAK:**

- **MALGUAK EDO ARTIKULATUAK:** barra metaliko batek lotzen dituen bi pieza osatuak daude. Barra metalikoak kranpoia mendiko boten luzera ezberdinetara egokitzea errazteaz gain, kranpoiari malgutasuna ematen dio ibilera erraztuz eta kranpoiaren azpian elurra piltzea zailduz.
- **KRANPOI ZURRUN EDO KAXA ITXURAKOAK:** pieza bakarrekoak (tamaina ezberdinetara egokitzeko sistema dute) eta zurrinak dira, ibilera zailduz. Izotz-eskalada bertikalean soilik aritzen diren eskalatzailen aukera nagusia izaten da, hanketako bikidak hainbeste nekatzen ez direlako.
- **MINIKRANPOIAK:** oinarriko kranpoi txiki batzuk dira (2 cm inguruko puntak izaten dituzte) eta jartzeko duten sistemagatik edozein zapatila edo bota bigunetara egokitu daitezke.

5. **KRANPOIAK LOTZEKO SISTEMA**

- **UHAL SISTEMA BIDEZ LOTZEN DIREN KRANPOIAK:** mendiko edozein botekin erabili daitezkeen arren, jarri eta kentzeko ez dira oso erosak eta erraz aska daitezke, horregatik noizki behin estutzen joan behar dira.
- **KRANPOI ERDIAUTOMATIKOAK (EDO C2 MOTAKO KRANPOIAK):** baloaniztunak dira, jartzeko errazak, bota zumun edo erdizumunetara ederrki egokitzen direnak. Botak koska bat izan behar du orpoan.
- **KRANPOI AUTOMATIKOAK (EDO C3 MOTAKO KRANPOIAK):** kranpoiak lotzeko sistemarik sendoa, eroso eta azkarrena da. Botak koska bana izan behar du orpoan eta puntan.

UHAL SISTEMA BIDEZ LOTZEN DIREN KRANPOIAK



KRANPOI ERDIAUTOMATIKOAK



KRANPOI AUTOMATIKOAK



6. **ANTIBOOTSYSTEMA.** Antiboot, ABS edo antislip sistema kranpoiaren zoruan doan latex edo plastikozko piezaz osatutako sistema bat da eta bere helburua kranpoiaren azpian elurra ez pilatzea da. Sistema hori izatea ezinbestekoa da erabileraren gehienetan.



7. **KRANPOIAREN ARMAZOA ETA PUNTAK EGINDAKO MATERIAL MOTA:**

- **ALTZAIRUA:** material iraunkor eta sendoena da. Altzairuak duen berezitasun nagusia apurtu aurretik okertu egiten dela da. Desabantailarik handiena: pisua eta herdoiltzeko arriskua.
- **ALUMINIOA:** aluminioa edo horren deribatuak (zircal edo duraluminioa) altzairua baino arinagoak dira, baina ez dira altzairua bezain gogorrak eta okertu aurretik apurtu egiten dira.

PIOLET ETA KRANPOIEN AUKERAKETA ERABILERAREN ARABERA

1. **GLAZIARRE TAN ZEHARKALDIK EDOTA IGOERA ERRAZAK EGITEKO:** piolet klasikoetara joko dugu ("B" motakoak). Aurreko puntak zapalak dituzten 10 edo 12 puntatako aluminiozko kranpoiak erabiltzea izango da aukerarik onena. Lotzeko sistema uhalen bidez egiten dena aukeratuko dugu (hemen erabiltzen ditugun botak, gehienetan, bigunak dira).
2. **MENDIKO ESKIA:** arintasunak lehentasuna duenez, pioletak "B" motakoak izaten dira, oso arinak eta 50 cm ingurukoak. Malda handietan euskari bezala, uesteko erorketa bat gelditzeko edota norbera aseguratzeke erabiltzeko dira batez ere. Aluminiozko kranpoietara joko dugu, 10 puntakoak eta aurreko puntak zapalak direnak. Lotzeko sistema edozein izan daiteke, baina kirol honetan azkartasunak ere garrantzia duenez, erdiautomatikoak edo automatikoak badira, hobe.
3. **KORRIDORE EDO KANAL ERRAZAK, BERTIKALAK IARTZEN EZ DIRENAK (45° + 55°):** piolet mistoak egokienak izan daitezke, aldapa gutxi edo lekuetan euskarri moduan eta lirtengunetan, beraien kirten okerra aprobetxatuz, traxzioa eginez igotzeko aukera emango digutelako. 12 puntetako altzairuzko kranpoiak aukeratuko ditugu, aurreko puntak zapalak edo "T" motakoak eta, ahal dela, erdiautomatiko edo automatikoak (hemen erabiltzeko ditugun botak ere erdizurrun edo zurrunak izango dira).



4. **TEKNIKOKIZAILAK IZAN DAITEZKEN KORRIDORE ETA KANALAK EDO ZAILTASUN GUTXIKO IZOTZ-ESKALADA:** pioletik egokienak "T" motakoak dira, 50 + 55 cm ingurukoak eta, kontuan izanda izotzetan ez dugula asko eskalatuko, xaffa "T" motakoa izatea komeni da. Aurreko puntak bertikalak edo "T" itxurakoak dituzten 12 puntetako altzairuzko kranpoi erdiautomatiko edo automatikoak aukeratuko ditugu.
5. **IZOTZ ESKALADA TEKNIKOAK:** pioleten xaffak "B" motakoak izan behar dira. Izotz-eskaladarako erabiltzen diren pioletak heldulekua ezproi itxurakoa dute, eskuak irrist ez egin eta izotzari ematen zaion kolpean indar handiagoa egiteko. Aurreko puntak bertikalak dituzten altzairuzko kranpoi automatikoak edo kranpoi zurrun edo kaxa itxurakoak dira gomendagarrienak, 12 edo 11 puntekin.
6. **DRY-TOOLING:** izotz eskaladako tresna eta teknikak erabiltz harkaitz-hornak eskalatzeko teknika da, tarteka izotza ere topatu daitekeen arren. Dry-tooling-erako oso teknikoak diren pioletak erabiltzen dira, orokorrean kirtena erabat okerra dutenak. Harkaitzean batez ere erabiltzen direnez, xaffak "T" motakoak izango ditu. Aurreko puntak bertikalak dituzten altzairuzko kranpoi automatiko edo botekin batera datozen kranpoi teknikoak aukeratuko ditugu, gehienetan 11 puntakoak (8 edo 9 puntakoak ere izan daitezke).